

FUNTSEZKO ELKARTEA

Guk sortutako aplikazioa zabaltzeko eta jende gehiagok erabiltzeko, pentsatu dugu, DGTarekin (Dirección General de Tráfico) kontaktuan jartzea onuragarria izan litzatekela.

Hasieran, DGTaren lana izan liteke, QR kodea gomendatzea, motoa erabiltzen dutenei, eta denboraren joanean, erabilgarria dela eta abantailak dituela ikusiz gero, pentsatzen dugu derrigortu litekeela. Izan ere, honen bidez, QR kodea duten kaskoak saltzerakoan, erraztasuna izango genuke webgune honen erabilera areagotzeko.

QR-ak interneten sortu daitezke modu oso errazean. Baina QR pegatinak imprimatzeko, hasiera batean, denda batekin kontaktuan jarriko ginateke. Eta denboraren joanean, guk sortzea errentagarriagoa ateratzen zaigula ikusiz gero, gure kabuz imprimatuko genituzke.

Gure ideia hau edo zerbitzu hau zabaltzeko, kaskoak saltzen dituzten dendekin hitz egingo genuke, honetan interesatuak egon litezkeen pertsonen webgune honen berri emateko eta erraztasun gehiagorekin saltzeko.